

Dantzariak, jaietako protagonista

Bihar jarraituko dute sanmiel jaiek ▶ 5



Azokak eta erromeria jendetsuak

AZOKAK ▶ Bidegoianen eta Ibarra jendetza bildu zen bertako produktuak ikusi eta dastatzeko; Otañok irabazi zuen aizkoran

ERNIO ▶ Azken erromerian 'Kutsidazu bidea, Ixabel' antzezlanaren izan zen ustekabea, jendetzaren gozamenerako ▶ 4-5-6



Zelatur. Ernio irailako azken erromeria aprobetxatuz, jendetza bildu zen igandean Zelaturen *Kutsidazu bidea, Ixabel* antzezlanaren ikusteko. Argazkian, protagonista guztiak saioaren amaieran. J.SAIZAR



Bidegoian. Artisauek ikusleen arreta jaso zuten Goiatzeko plazan; produktuak, jatekoa eta edatekoa ez ziren faltatu igandean. O.ESKUTXABEL



Ibarra. Ganadua izan zen igande goizeko azokako protagonista, barazkiekin eta artisauekin batera. I.TERRADILLOS

ARESO ▶

37 mila eurotik gora jaso dira uso-postuen enkantean

Urteaga mendiko 3. postua 4.231 euro ordaindu dute ▶ 7



Uso postuen enkanteko irudi bat Aresoko udaltxean. J.ASTIBIA

TOLOSA ▶

Gutxigatik galdu dute lehen partidua

Futbolariak 4-3 galdu dute Erreterian ▶ 3

GIZARTEA ▶

Zilegi da zoriontasuna lortzea, «norberaren burua ezagutuz gero»

‘Zorionaren sekretua’ izeneko jardunaldiak ari dira egiten egunotan Kultur Etxean, kontzientzia globalaren inguruan

IRATXE ETXEBESTE

Seigarren urtez, kontzientzia globalari buruzko jardunaldiak antolatatu ditu Sanatana Dharma, Tolosako Yoga Elkarteak egunotarako. *Zorionaren sekretua* izena jarri diote sustatzaileek ekimenari, eta, besteak beste, zoriontasuna nola bila daitekeen azalduko omen dute, ostirala bitarte, egunero Antonio Maria Labaien kultur etxean eskainiko dituzten hitzaldietan.

Atzo egin zuten yoga elkarteak lehen solasaldia. Sanatana Dharma eskolako zuzendari Bharat Martinek *Zeure burua*

ezagutu ezazu, zorionaren sekretua da hitzaldia eskaini zuen jardunaldiari hasiera emateko. Yoga eta meditazio irakaslea da Martin, eta baita talde terapeuta ere. Norberaren burua ezagutzeak gizabanakoari «mesede» egiten diola esanez hasi zuen solasaldia, eta hainbat ildo zehaztu zituen jarraian autoezagutza hori ahalik eta ongien egin dadin bermatzeko.

Gaur izango da jardunaldietan bigarrena, eta urriaren 1a, ostirala, bitarte egunero eskainiko dituzte hitzaldiak Tolosako Kultur Etxean. Antolatzaileen esanetan, jardunaldiak «hitzaldi ezberdinak» izango dira

finean, eta alor horretako profesionalek —hala nola, sendagile, terapeuta, irakasle, psikologo...— emango dituzte. «Autoezagutzaren bitartez gure bizitza nola hobetu dezakegun esango dugu solasaldi horietako bakoitzean», esan du Bharat Martinek. Izan ere, norberak bere burua ezagututa zilegi da, *Zorionaren sekretua* ekimenaren bultzatzaileek uste dute-nez, «osasuna, ongizatea, bakea, zoriona... lortzea».

Irekia eta dohainik

«Jende guztiari irekita egongo dira jardunaldiak», antolatzaileek diotenaren arabera. Zeren eta gai horretan interesaturik dauden herritarren artean «komunikazio, gogoeta eta zabalakuntza foro bat sortzeko asmoa» dute yoga elkarteak: «Eztabaida sortu nahi dugu ongizatea, poza, osasuna, bakea, zoriona edo gisa horretako gairen baten inguruan interesa duen jendearen artean, eta horretarako, behar-beharrezkoa da herritarren iritziak eta ekarpenak jasotzea».

Orohar, yogari, barneko bakeari eta giza jarrerari buruz ariko dira egunotan gai horietan adituak diren irakasle eta sendagileak, eta guztiak ere zoriona lortzeko bideak zehaztuko dituzte solasaldietan. 20:00etan hasiko dira hitzaldiak Kultur Etxean, eta sarrera dohainik izango da bertara hurbildu nahi dutenentzat.

EGITARAUA ▶

Kontzientzia globalari buruzko VI. jardunaldiak atzo hasi ziren Kultur Etxean, eta ostirala bitarte, hitzaldiak izango dira egunero 20:00etan hasita. Sendagileak eta irakasleak gidatuko dituzte solasaldi horiek, eta herritar guztiak hartu ahal izango dute parte.

GAUR

20:00. Hitzaldia: *yoga egunerokotasunean*. Gerardo Escarza *Kesava*, yoga irakaslearen eskutik.

BIHAR

20:00. *Barneko bakea*. Manuel Paz *Madhava*,

Sanatana Dharma yoga eskolaren sortzaile eta lehendakari eta meditazio irakaslearen eskutik.

ETZI

20:00. *Giza jarrerak*. Javier Aizpiri *Kalki*; bioespinologoa eta yoga irakaslea da Zaragozan (Espainia).

OSTIRALA, URRIAK 1

20:00. *Yoga: xumea izatearen artea*. Alfredo Iglesias *Druva*-k eskainiko du solasaldia. Medikuntzan doktoratua eta homeopatia da. Medikuntza vedikoa eta ayurvedaren irakaslea ere bai.

GARAGARDO FESTA ▶

«Balantze ona» egin dute Garagardo Festari buruz

Saltxitxa, piper eta postreen kopurua %10 igo da; garagardo eta ukondoena, mantendu



Garagardo Festak jende andana bildu du aurtien ere. AMAIA BELAUNZARAN

I. ETXEBESTE

«Aurtengo balantzea ona da; argi dago Tolosako Garagardo Festak arrakasta handia duela, ez bakarrik herritarrentzat, baita kanpotarrentzat ere; jende askok esaten duen bezala, Inauteriak kenduz gero herrian eta tabernetan giroa sortzen duen festa garagardoarena da». Halaxe esan dio Hitzari Garagardo Festaren antolatzaile Isabel Salaberriak: «Ostegunean herriko jendea eta asko ibili zen, ostiralean jendez gainezka egon zen Zerkausia eta inguruak eta badakigu esertzeko lekuri ez, eta elkarrekin joan zirela azokan afaria hartuta jatera; larunbatean iaz baino jende gutxiago ibili ote zen errezeloa daukagu eta igandean, betiko moduan, familiak-eta izan ziren gehien».


Garagardoari dagokionean, iaizo litroei eutsi diela esan dute antolatzaileek, baina, beste alde batetik, zalantza egiten dute aurtengaragardo arrunta ez eduki izana onerako edo txarrerako izan den.

Saltxitxen, Ibarra piperren eta postreen kopurua %10 igo da, eta ukondoak «iaz saldutakoen parean ibiliko direla uste dugu». Hala eta guztiz ere, ukondoekin arazoren bat edo beste izan dute aurtengoan, «batzuk lixiba usaina zeukatela». Hornitzaileekin hitz egin zutela, eta hark partida baten arazoa izan zela erantzun ziela dio Salaberriak. «Barkamena eskatu digu, baina hori ez da kontua».

Alde horretatik, barkamena eskatu nahi diote Garagardo Festaren antolatzaileek baldintza onetan ez zegoen ukondo eskaini zitzaizkion, «ondo erretzen hainbeste saiatu eta gero ez baita bidezkoa jendea gustura ez geratzea». Sukaldera ukondoak ona ez zegoela esatera inguratu zirenei beste bat eman zieten arren, denak ez ziren hara joan, eta «berezi-ki horiei eskatu nahi diegu barkamena», diote.

Datorren urtean ez zaie horrelakorik gertatuko, «aldez aurretik, behar diren neurri guztiak» hartuko dituztelako Festaren antolatzaileek.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: enio@inmoenio.com
www.inmoenio.com

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 119.000 eurotik aurrera.

Tolosa. Korreo kalean, 2 logela etxebizitza salgai, estreinatze erabateko berrikuntza egin ondoren.

Tolosa. Amaro zuzen oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel, 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Larramendi, pisu ederra garajearekin salgai.
Tolosa. Gernikako lorategian, 108

m2, pisu ederra salgai, trastelekuarekin.

Tolosa. Araba etorbidea. Pisu ederra, garajea eta trastelekuarekin. Berokuntzarekin. Bista ederrak eta eguzkitua.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikustekoa!!!

Tolosa. Erdialdean azkeneko pisua terraza ederrarekin, aukera paregabea!!!

Ibarra. Argindegi, hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela, berokuntzarekin.

Ibarra. Julian Gaiarren. Berritutako etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna.

Berogailuarekin. Guztiz kanpoldera. **Ibarra.** Eraikuntza berriko bi logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Anoeta. Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekuak. Sartzeko moduan.

Villabona. Etxeondo, pisua ganbara eta garaje itxiarekin.

Villabona. Kale Berrian 180 m2-ko etxebizitza berokuntzarekin.

Villabona. Errota, pisua ganbara eta garaje itxiarekin.

Villabona. Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisua, trastelekuak eta garajearekin.

Berrobi. Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.

Andoain-Urnieta. Hainbat etxebizitza berri eta 2. eskuokak.

Pabilioi eta lokaletan. Aukera handia; salmentan eta alokairuan.

Peñíscolan. Apartamentu ederra salgai, terraza ederrarekin. Informazioa Enrio: 943 65 50 37.

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

FUTBOLA

Gorengoen Maila.

Touring - Tolosa	4-3
Saikapena ▶	
1. Orioko	9 puntu
2. Hondarribia	8 puntu
3. Zestoa	8 puntu
4. Ordizia	7 puntu
5. Touring	7 puntu
6. Pasajes	7 puntu
7. Mutriku	7 puntu
8. Tolosa	7 puntu
9. Trintxerpe	7 puntu

Lurraldekako 1. maila.

Altsasu - Aurrera	1-0
Tolosa B - Astigarragako	0-1
Saikapena ▶	
1. Irun 1902	6 puntu
2. Euskalduna	6 puntu
3. Lengokoa	4 puntu
4. Allerru	4 puntu
5. Ostadar	4 puntu
6. Amara Berri	3 puntu
7. Astigarragako	3 puntu
8. Ordizia	3 puntu
9. Mariño	3 puntu
10. Roleta	3 puntu
11. Martutene	2 puntu
12. Behobia	1 puntu

13. Beti Ona	1 puntu
14. Vasconia	1 puntu
15. Tolosa B	0 puntu
16. Gure Txokoa	0 puntu

Lurraldekako 2. maila.

Danena - Amaro	2-1
Inburre - Usurbil	2-1
Saikapena ▶	
1. Danena	4 puntu
2. Sanpedrotarra	3 puntu
3. Lasarte Oria	3 puntu
4. Usurbil	3 puntu
5. Inburre	3 puntu
6. Lazkao	1 puntu
7. Amaro	0 puntu

Jubenilen Euskal Liga.

Tolosa - Lagun Onak	2-1
---------------------	-----

Kadeteen Euskal Liga.

San Ignacio - Tolosa	2-1
----------------------	-----

ARETO FUTBOLA

1. A maila.

Ibarra - Tomas Mingot	7-3
-----------------------	-----

FUTBOL 7

1. maila.

Irish Guinness - Lanbroa Dickens	4-2
Ibarrako GA - Knauf Dec. Nuñez	0-3
Saikapena ▶	

1. Cesar Rueda Seguros	6 puntu
2. Robers	6 puntu
3. Perku taberna	4 puntu
4. Callejo Lanperna	4 puntu
5. Zardoya Otis	4 puntu
6. St. Etienne Cafe Bar	4 puntu
7. La Kabutzia	3 puntu
8. Irish Guinness	3 puntu
9. B. Ignacio-Hondarribia	3 puntu
10. Zibbibo Dance Club	3 puntu
11. Cesar Rueda Seguros	3 puntu
12. Kroms	1 puntu
13. Lanbroa Dickens	1 puntu
14. Easo motor	0 puntu
15. Bataplan	0 puntu
16. Ibarako Gazte Asanblada	-1 puntu

2. maila A.

Bar Shanti Kirolak - Papeleria Tamayo	5-3
Saikapena ▶	

1. Ekin Fisioterapia zentroa	4 puntu
2. Taberna Dani	4 puntu
3. Disco Bar Egur	4 puntu
4. Aseplan	4 puntu
5. Encofrados Iguazuri	4 puntu
6. Pub Egurri	4 puntu
7. Ron Cartavio	3 puntu
8. R. Izkina-Pasaia	3 puntu

9. In the line	3 puntu
10. Bar Shanti Kirolak	3 puntu
11. Cabo Rojo Pyxies	3 puntu
12. Eibartarra Dance Club	2 puntu
13. Fermex-Instalaciones GC	1 puntu
14. Sagardotegi Akelenea	1 puntu
15. Papeleria Tamayo	0 puntu
16. Nin Climatizacion	0 puntu

PILOTA:

ELKARTEEN ARTEKOA

Kadeteen 1. maila.

Tartaloetxe - Zazpi Iturri	15-22
(Mikel Nazabal)	
Gure Txeru - Zazpi Iturri	0-22
(Ropon-Leunda)	
Elordi/Herrigin - Zazpi Iturri	22-13
(Iraola-Jauregi)	
Urnieta - Aurrera Saiatz	04-22
(Xabier Tellebea)	

Gazteen 1. maila.

Zazpi Iturri 1- Añorga 1	22-16
(Elurbe-Mendizabal)	
Zazpi Iturri 2 - Hernani 1	17-22
(Zabala-Legarreta)	
Txapagain - Aurrera Saiatz	07-22
(Koldo Galarra)	
Goierri - Aurrera Saiatz	22-04
(Beñat Iriarte - Xabier Galarra)	

Nagusien 1. maila.

Zazpi Iturri - Oskarbi	02-22
(Aritz Ropon)	
Zazpi Iturri 2 - Bergara	06-22
(Haritz Garmendia)	
Aurrera Saiatz - Zazpi Iturri	05-22
(Mikel Bellosio-Iker Huarte / Baez anaiak)	

Nagusien 2. maila.

Zazpi Iturri - Altzatarra	22-20
(Iriarte - Martinez)	

Nagusien 3. maila.

Aurrera Saiatz - Kuku	22-06
(Igor Aranzabe - Eneko Galarra)	
Aurrera Saiatz - Aldezaharra	22-08
(Ugaitz Renobales - Julen Mujika)	

ZESTA-PUNTA:
ELKARTEEN ARTEKOA

Kadeteak.

Donostia Jai Alai 2 - Beotibar 1	30-23
(Telleria - San Sebastian)	

Nagusiak.

Zumaia 5 - Beotibar 1	35-34
(Arrexe - Errondosoro)	
Gazteleku 1 - Beotibar 2	35-18
(Trabazos - Gonzalez)	

FUTBOLA ▶

LEIRE MONTES

«Jokalariek oraindik ere ez dute sinisten galdu izana». Hala mintzatu zaio HITZARI Jose Mari San Sebastian Gorengoen Mailako Tolosa CF taldeko delegatua. Haren esanetan, partida osoan nagusi izan arren, «zorte txarrendatik eta ate aurrean egindako hutsengatik» galdu zuten norgehiagoka urdine.

Lehenengo zatian nahiko patall aritu ziren Tolosakoak. Gol aukera dezente izan zituzten, baina ez zuten asmatu jokaldiak amaitzen. Bigarren zatian, baina, «esnatu» egin ziren: atsedendialdiak entrenatzailearekin izandako solasaldiak eta Tourinek bigarren zatia hasi eta berehala sartu zuen golak eragina izan zuten nonbait. «Bigarren zatian gu izan ginen nagusi. Haiek ezin zuten beren areatik atera; eta guk, aldiz, tinko eutsi genien erasoei. Fisiko ki nekatuak nabaritzen zitzaizkien, eta gu oraindik sasoiko geundela aprobeztatuz, lehia bukaera-bukaerara ino mantendu genuen», azaldu du San Sebastianek. Epaileak zortzi minututan luzatu zuen partida,

Denboraldiko lehen partida galdu du Tolosak, gutxigatik

Nagusi izan arren, urdinek zorte txarra izan zuten eta huts egin zuten ate aurrean

eta luzapeneko minutu horietan ere gol aukerarik izan zuen Tolosak. Baina partida berdintzeko azken aukeran ere huts egin zuen. «Zorte txarra, zortxe txarra», dio penaturik, delegatuak. Era berean, Gorengoen maila oso parekatua dela gogoratu du: «Berdintasun handiko Liga honetan amaiera arte lehia estua izango dela ikusi dugu berriro».

Gorka Blancok partida osoan erakutsitako maila goraitatu du San Sebastianek. Regillagaren, Ilunberen eta Aranguren lana ere azpimarratu du: «Lehen oso ondo aritu zen bigarren zatian, eta beste biek haize freskoa eman zioten taldeari».

Datorren larunbatean Aretxabaleta hartuko du Tolosak Berazubini, 16:30ean.



Tolosa eta Aloña Mendi lehia, Berazubini, artxiboko irudian. M. SOROA

TOURING ▶	4
TOLOSA ▶	3

Touring. Anso, Martinez, Muga, Encinas, Dorronsoro (Esteban), Franco, Auzmendi (Mitxelena), Neves (Montes), Jimenez (Munarriz), Arrieta, Maritxalar (Araneta).

Tolosa. Apezetxea, Goikobxeandia (Aranguren), U. Garmendia (Romero), Sagastibeltza, Y. Garmendia, Aierbe, Garagarza (Ilunbe), Orue, Regillaga, Lasa, Blanco.

Golak. 0-1: Sagastibeltzak (02m.); 1-1: Auzmendik (09m.); 2-1: Dorronsorok (38m.); 3-1: Maritxalarrek (49m.); 3-2: Blancok (65m.); 4-2: Nevesek (69m.); 4-3: Sagastibeltzak (75m.).



www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, egunko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...



Jende asko Ruper Ordorika entzuten

IRURA ▶ *Rupertorioa* entzuteko asmotan, abeslari ofatiarraren jarraitzaile asko elkartu zen igande arratsaldean Iruran. Aurretik frontoi berrian Mindegia, Vicente eta Saralegi herri kiroletan eta Polonia eta Kataluniako dantzari taldeen emanaldietan ere jende ugari bildu zen. Bihar jarraituko dute Irurako jaiek eta San Migel zaindariaren eguna ospatuko dute. J.SAIZAR



Alegiako dantza taldeen emanaldia

ALDABA ▶ Alegiako dantza taldeek erakusketa eskaini zuten herenegun Aldabako San Migel jaietako egitarauaren baitan. Taldeko gaztetxoek *Sorgin-dantza* eta *Altsasuko Iñauteriak* dantzatu ondoren, helduen txanda iritsi zen. Agurrarekin hasi zuten emanaldia eta *Azeri dantza*, *Fandangoa*, *Arin-arina...* dantzatu zituzten ondoren. Jarraian, haur-jolasak izan ziren. O.ESKIXABEL

GIZARTEA ▶

Antzerkia Zelatunen

‘Kutsidazu bidea, Ixabel’ antzezlanaren izan zen iraileko azken erromeriko ustekabea Ernio azpiko zelaietan

JOXEMI SAIZAR

Aspalditik zabaldutako zurumurrua zen eta herenegun konfirmatu egin zen. Gorringo antzerki taldeak iraileko azken igandeko erromerian azkenaldi honetan hain arrakastatsua izan den Kutsidazu bidea, Ixabel antzezlanaren eskaini nahi zuen Zelatunen,

Ernio azpian, eta halaxe izan zen. Urtero hilabete honetako igandeetan —batez ere azkenekoan— jende asko biltzen bada Ernio inguruan, aurten goak ustekabe berezi hori izan du.

Eguerdi partean izan zen. Ordurako jende gehienak erreumaren aurkako burni uztaiak bere gorputzetik pasatu, kolo-

retako zintak erosi eta gailurrean izana zen. Salda beroa hartu, eta bazkaltzen hasi aurretik, ikuskizun aparta izan zuen Harrialdeko *Aranguren* base-rrian Ixabel eta bere anaia, aita eta amonarekin eta Alkizako barnetegian euskara ikasten Juan Martinek izandako abenturekin. Irrifarrea ez zuten kendu ikusleek emanaldi osoan.



Ikusle ugari bildu zen Zelatungo zelaietan antzerkia ikusteko. J.SAIZAR



Ixabel eta Juan Martin antzezlaneko protagonista nagusiak. J.SAIZAR



BIDEGOIAN ► AZOKA



Lanean. Goizean zehar kaikuak egiten aritu zen Nafarroatik gerturatutako artisau bat. O.ESKIXABEL

Goiatzeko plaza, jendez gainezka

Eskulanak eta produktuak ikus zitezkeen pilotalekuan; plazan, jatekoa eta edatekoa eskaini zituzten doan

OLAIA ESKITXABEL

Herenegun jarri zen abian Bidegoiango XV. Kultur Astea eta ez du nolanahiko hasiera izan. Goiatzeko plazan kokatu zen festa. Pilotalekuan, artisauak eta baserritarrak euren produktuak jarri zituzten; denetarik aurki zitezkeen bertan: ezti, barazkiak, aloe verako produktuak, pilotak, kaikuak, pastelak, aintzinako tresnak...

Enparantzan, berriz, sagardoa, txakolina eta sardinak banatu zituzten doan. Batzuk, Ernioko erromeriatik buelta eginda zeudelako eta besteak bazkal ordua inguratzen ari zelako gosituta jende ugari inguratu zen sardinak erretzen ari ziren lekura.

Eskulan tailerreko lanak

Herriko artisten lanek ere izan zuten tokia herenegungo azokan; eskulan tailerrean Bidegoiango emakumeek egindako lanak aurki zitezkeen. Teknika



Saltzen. Eskuz, palaz nahiz zesta-puntan jokatzeko pilotak aurkitzen ziren salgai postuetako batetan. O.ESKIXABEL

desberdinak erabiltuta egindako lanak zeuden ikusgai.

Garai bateko zeramika fabrikaren egindako produktuak ere jarri zituzten jendaurrean; 1927ko, eta fabrika istear zegoeneko, 1970. urteko, ontziak ere aurkitzen ziren erakusgai.

Kultur Astea hasi besterik ez da egin; larunbata bitarte ekitaldi ugari antolatu dituzte. Gaur, garapen psikologiaren inguruko hitzaldia eskainiko du Txus Kongil adituak; hitzaldia 15:00etan izango Bidegoiango balioanitzeko gelan.

ANOETA ► GIZARTEA

Emakume bat hil da auto batek harrapatuta

Hildakoa F.S.Z. da, 85 urtekoa; Bentaldea industrialdeko errepidean jo zuen autoak

J. SAIZAR

Batzarra atzeratu egin da

Atzo 11:20ak aldera Seat Ibiza auto batek emakume bat harrapatu zuen GI-3650 errepidean, Anoetako Bentaldea industrialdean. Harrapatutako emakumea F.S.Z. da, bedaiotarra jaiotzez, baina Anoetan bizi zena, 85 urtekoa. Lesio larriak jasan zituen eta Donostiako Erresidentziara eraman zuten. Arratsaldean hil zen zauri larrien ondorioz.

Errepidea moztuta egon zen karril batean eguerdikio 13:00ak arte eta Ertzaintzak istripuaren agiria jaso zuen ikerketa egiteko.

Heriotz honen ondorioz, Alkartasuna jubilatuen elkarteak gaurko zuen ez ohiko batzarra ostegunera atzeratu du, hildakoa elkarteak bazkidea zen eta hileta elizkizuna 19:00etan izango delako.

Batzar hori etzi, osteguna, egingo da 18:30ean egoitzan bertan. Gai nagusia ostiralean San Juan kalean zabalduko den elkarrearen egoitza berria izango da. Urte bukaera arte tabernaz eta garbiketaz arduratu beharko dute jubilatuek eta horretarako boluntarioak eskatzen dituzte.

AMEZKETA ► MUSIKA

Musika Eskolako izen-ematea zabalik

Urriaren 2a da izena emateko azken eguna; helduek zein haurrek eman dezakete izena

O. ESKITXABEL

gunetan eta ostiralean izango dira. Kitarrako eskolen egunak zehazteke daudela azaldu dute Musika Eskolako ordezkariak.

Amezketako Musika Eskolako laister ekingo dio ikasturte berriari; izena emateko epea zabalik aurkitzen da.

Zazpi ikastaro eskainiko dira aurtengo ikasturtean. Hiru eta zortzi urte bitarteko entzat musika tailerra eskainiko da; asteazkenetan, 15:00etatik 16:00etara, eta, ostegunetan 17:00etatik 18:00etara izango da.

Trikitixako, panderoako eta akordeoiako eskolak ostiralean izango dira. Solfeoko eta pianoko eskolak, berriz, astearteetan, asteazkenetan, oste-

Ostirala, azken eguna

Haurrek nahiz helduek eman dezakete izena Musika Eskolako ikastaroetan.

Informazio edota argibide gehiago nahi izanez gero, Musika Batzordeko telefono zenbakira deitu daitezke: 690 34 90 09 (Agurtzane).

Interesatuak ostirala, urriaren 2a, baino lehenago eman beharko dute izena.

iragarki laburrak ►

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.:616 93 17 88



Alegia. Eraikuntza berria, duplexak eta etxebizitzak 34.500.000 pezetatik aurrera. Inmo Ebesagasti. 943 69 68 56.

Altoz. Erabat berritua dagoen etxebizitza salgai, 2 solairukoa, solairu bakoitza 85m2koa. 707 m2ko lursaila du. 943 69 68 56.

Ibarra. 69 m2ko etxebizitza, trastelekuak, egongela, sukaldea eta 2 logela. Eraiki berria, kanpokaldera begira. 4. pisua igogailuarekin. Inmo Ebesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. 90 m2ko etxebizitza, egongela, 2 logela, 2 bainugela eta jantzigelarekin. Eguzkitsua. 943 69 68 56.

Lizartza. Baserri oso polita, 155 m2ko 2 solairu ditu, berritua, 1.800 m2ko lursailarekin. 943 69 68 56.

Ordizia. 50m2ko etxebizitza, 2 logela, berrikuntza egin berria. Estreinatzeko. 25.000.000 pezeta. Ezin hobeto. Inmo Ebesagasti. 943 69 68 56.

Ordizia. 85 m2ko etxebizitza. Egongela,

sukalde handia, hiru logela, bainugela eta trastelekuarekin. Berritua berria, altzariz hornitua. 29.900.000 pezeta. Inmo Ebesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 185 m2 inguruko etxebizitza zoragarria. Egongela, sukaldea-jangela, 5 logela, 2 bainugela eta trastelekuak. Inmo Ebesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 75 m2ko etxebizitza. Hiru gela, egongela eta sukalde amerikarra. Aparteko sukaldea; bizitzera sartzeko prest.

34.000.000 pezeta. Inmo Ebesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. 85 m2ko etxebizitza. Egongela, sukaldea, hiru logela eta komonarekin; berrituko. 36.000.000 pezeta.

Zizurkil. 90 m2ko etxebizitza. Egongela, sukaldea, lau logela eta komonarekin.

Kanpokaldera begira eta berritua.

Eskari handiagatik. Nekazal lursailak, urbanistikoak, pisuak, bailetak, baserriak. Saltzeko eta alokatzeko.

IBARRA ▶ AZOKA



Taloak dastatzeko aukera izan zuten igandean Ibarako Euskal Herria kalera bertaratu zirenek. IÑIGO TERRADILLOS

Beste urteetan baino jende gehiago izan da azokan

Antolatzaileak pozik agertu dira ikusle eta erakusleen partaidetzarekin; 36 postu izan dira ikusgai; aberreetan ere aukera handiagoa izan da aurtengoan

IÑIGO TERRADILLOS

Eguraldi polita lagun zela jende ugari gerturatu zen igandean Ibarra, *Bertakoa, ezagutzekoa!* azokara. Euskal Herria kalean bertako produktu ugari izan ziren ikusgai jarri zituzten 36 postuetan. Beko Bide kalean, berriz, bertako baserrieta-ko behiak, txekorrak, zezenak, astoak, ardiak eta ahuntzak ikusi ahal izan ziren, besteak beste, txikiak zaldi gainean zebiltzan bitartean.

Hauspoa kultur elkarteak antolatzen du azoka hau eta aurten bosgarren urtea egin du. Antolatzaileak oso gustura ageri dira aurtengo azokak eman duenarekin, «beste urteetan baino jende gehiago» izan dela batetik eta aberen alde-rik ere aurtengoan «abere gehiago ekarri dituztela baserri-errek» aipatu baitute. Hala ere, datorren astean bilduko dira azoka antolatzen ibili direnak aurtengotik atera beharreko ondorioak ateratzeko.

10:00etan ireki zen azoka eta 14:00ak arte hainbat ekitaldi izan ziren tartean. Talo tailerra egin zuten haurrentzat eta asko izan ziren ikastera gerturatu zirenak.

Azokaren beste puntu garrantzitsua Gipuzkoako erla- zain elkarteak antolatzen duen eta Ibarra hirugarren aldiz egin den VII. Ezti Lehiaketa izan zen. Amezketarra eta bi el- duaindar izan ziren lehenengo hiru postuetan geratu zirenak eta trofeoa irabazi zutenak eta baita ere Euskal Herriko Txa- pelketarako txartela lortu zute- nak.

Interesgarria izan zen, baita ere, Unai Otaño (*Orita*) eta Je- xux Mari Mujika ibartarrak au- rrez aurre ipini zituen aizkora apustua. Azken unerarte ber- dindurik izan ziren bi aizkola- riak eta azken egurrean, alde pixka batekin, Unai Otaño irabazi zuen.

Bertara joatea ohitura bihur- tzen ari den azoka dugu hau, herria hobeto ezagutzeko au- kera ematen duena.

SAILKAPENA ▶

EZTI LEHIAKETA

1. Ainxio Karrera (Amezketarra)
2. Simon Nazabal (Elduain)
3. Joxe Mari Larreta (Elduain)



Unai Otaño (eskuinean) irabazi zuen aizkora apustua. I. TERRADILLOS



Barazkiak, artelanak, argazkiak... izan ziren ikusgai. I. TERRADILLOS

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzio klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aurrin aldizkaria: 30 07 32

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Bronte C., Korreo kalea

20 (Tolosa). 943 67 60 13

M.Plaza. Elbarren 36 (Leitza) 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Hyundai Lantza salgai.

Sei urte. 686 87 04 07.

ARESO ▶ GIZARTEA

Uso-postuen enkantea bukatuta, 37 mila eurotik gora jaso dira

Urteaga mendiko hirugarren ehiza-postua 4.231 euroraino ordaindu da, herrian sekulan ordaindu den gehiena



Urteagako uso-postuen enkanteak ehiztari asko erakarri zituen larunbatean. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Larunbat iluntzea zen eta Aresoko udaletxeko batzar aretoa jendez gainezka ageri zen, gehienak gizonezkoak, eskuko behatzak kontatu ahala emakume izan ezik, eta adin guztietakoak. Denak ehiztariak, urduri eta kanpokoak. Herrian bertako *jotzailea*, bakarra, ikusle modura dezente bildu baziren ere. Eta udal ordezkari eta langileak mahaitik, hura guztia zuzentzen: alkatea eta zinegotzi bat, beste bi laguntzaileekin, kalkulagailua eskutariak ematen; eta albientea «ea zeinek hobetzen duen?» galdezka, behin eta berriz. Hauxe zen larunbatean, Urteagako uso-postuen enkantea bigarren saioan ikus zitekeena.

Larunbat honetan zortzi burutu zen enkante honen lehen saioa. Bertan 27 uso-postu ateratu ziren, gehien eskaintzen zuenarentzat eta *sextoko* epea ireki. Bost postu izan ezik, gainerako guztiak berriz ere

enkantera atera ziren, seiren bateko gorapena jasan zutelako epe horren barruan.

Eta emaitzak ez ziren zalan-tzakoak izan: Urteagako uso postuak erabiltzearen truke, 30.888 euroko dirutza (lehen-go 5.139.331 pezeta) eskuratu zuen Udalak, enkantea bukatzeko egindako azken saio honetan. Kopuru horri, BEZari dagokion %16a eta administrazio gastuengatik beste %4a erantsi behar zitzaiola argitu zuen Aresoko Udaleko idazkariak berak, saioa hasi aurretik, jotzaileak jakitun egon zitezen. Azkenean, beraz, guztira, 37 mila eurotik gora eskuratu zituen Udalak, iaz baino ia 7.500 euro gehiago.

Esan behar da, saioa bukatu zenean, postuen jabeek haien balioak, orduantxe bertan utzi behar izan zituztela, udal erre-gistroan.

Nabardurak

Kontuak kontu, bertakoek adierazi zutenaren arabera

beti ere, beste urteetan baino jendetsuago izan zen enkante saioa. Jotzaile gehienak, Gipuzkoa aldekoak, Donostia ingurukoak ziren esan zutenek, Iruñeritik etorritako batzuk ere bazirelarik. Enkantera aterako postuetatik bakarra gelditu zen Aresoko bertako herritar batentzat. Gainerakoak kanpoko jendeak hartu zituen.

Han bertan batek baino gehiagok aipatu zutenek ere, aurtien haina diru ez omen da ordaindu postuengatik. Eta nabarmendu zuten sekulan postu batengatik ordaindu den gehiena ere, larunbatean eskuratu zela, 3. postua (birigarrotarako omen) 4.231 eurotan esleitu baitzen.

Edozein moduz, ordu eta erdiko saioan, tantoka-tantoka, hasierako prezioak 15 aldiz, 8 aldiz, hobetu ziren kasuak izan ziren, hasierako prezioa «baxua» zelako. Baina, ustez aurreko saioan asko jotakoak ere jabez aldatu ziren berriz, balioa bikoiztera iritsiz, arestiko 3. postua kasu.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Ehiztari bat zauritu da mendiko istripu batean

Albiño parajetik helikopteroz erreskatatu eta eritetxean dago, zaurietatik sendatzen

J. ASTIBIA

Ingande eguerdian 14:30 aldera, J.M.G.A. leitzarrak istripua izan zuen ehizean ari zen mendian, Albiñoko parajearen. Nonbait taldeari ihes egin zion zakurra bilatu eta bueltan lagunengana zihoala, irrist egin eta gero.

Badirudi, irrist egin eta, leku maldatsua eta soil samarra izaki, bizkarrez, aldapan behera, arrastan, bide luzean joan ondoren, azkenik koska batetik behera erori zela giza-seme hau eta mendizulo batean gelditu zaurituta.

Erorketa zalapartatsua ikusita, hasierako uneetan, eroriaren ondorioz, kolpe handiez gain, zenbait hezurren hausturak ere, batez ere aldaka aldean, izan zitzaizkela uste izan zuten bere kideek eta bertara ekarrazazi zuten medikuak berak ere. Dena den,

paraje horren ezaugarriak kontutan hartuta —oso malkartsua eta ibilgailuak bertara joateko sarbide oso zaila—, zauritua handik ateratzeko helikopteroaren laguntza (Nafarroako Gobernuko) behar izan zuten, mugitu zitekeela ziurtatu eta lehendabizi, leku garbiago batera garraitu ondoren. Suhiltzaileen anbulantzia eraman zuten Iruñera, Nafarroako Ospitalera eta bertan, ingesatuta gelditu zen.

HITZAK atzo jakin ahal izan zenez, zauriak ez ditu hasieran uste zuten bezain larriak. Baina, hala ere, femurra aterata zuten, (igandean bertan jarri omen zioten bere lekuan), eta zenbait saihestez hezur arrailatuta ditu, gorputz guztia kolpez josia izatez gain, erorikoaren eraginez. Sendatze bidean omen da.



Hileroko kontzentrazioa burutu da asteburuan

LEITZA ▶ Ostiralean, hileroko azkenekoan burutu ohi den presoan aldeko kontzentrazioa burutu zen, Leitzan ere, *Euskal preso politikoak etxera* lema zeraman pankartaren atzean. Kasu honetan, dozena bat lagun inguru bildu ziren, Lopene aurreko iturriaren aurrean, eta hogeita hamar, berrogei bat minuturen burura, ekitaldia bukatutzat jo zuten, astelehenerako deituta zegoen manifestaziorako deialdiarekin ere bat egiteko gogora ekarri ondoren. J. ASTIBIA

ESKERTZA ▶
PABLO ZUBELDIA OTEGI jaun hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zireneten guztiei.
Tolosa, 2004ko irailaren 29a

HITZA, eskualdeko plaza
661 678 818 Toki aproposa iragartzeko
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!